

**UNAI BARRUETABEÑA -KONPOSITOREA**

## “Ikastaro pare bat eginak ditut baina ez dago ezer serioegirik honetan ikasteko; orain ni ari naiz Hernanin ikastaro bat ematen”

■ Sei bat urte izango dira Unai Barruetabeña ordenadorez musika sortzen hasi zela ■ Beraiek antolatutako festetan ematen du aditzera egindako lana baina badu bestelako proiekturik ere, Hernaniko Kronikari adierazi dionez.

Teknologiak aurrera egin ahala musika munduan ere makina bat aldaketa izan dira. Nork esango zuen due-la hamarkada batzuk ordenadorez musika egin ahal izango genuenik? Ez dira hamarkada asko pasa musika elektronikoaz ari garenetik; 70. hamarkada inguruhan hasi ziren ordenadorea oinarri hartuta musika sortzen zuten taldeak; Euskal Herrira beranduago iritsi da musika ulertzeko edo egiteko modu berri hau; zenbaiti oraindik zail egiten zaio ordenadoreak musika sor dezakeenik sinestea. Unai Barruetabeña, ordenadorea lagun, musika konpositorea da; CD bat eskutan eterri da itzartutako lekura. Musika goxoa da jarri diguna, atsegina, nahi gabe oinak mugitu arazten dizkizuna.

■ Noiztik datorkizu musika-rekiko zaletasuna? Noiz hasi zinen konpositore lanetan? Duela sei bat urte hasi nintzen ordenadorez musika sortzen. Musika programa bat lortu nuen eta lagun batekin probatzen hasi nintzen. Ikastaro pare bat eginak ditut baina ez dago ezer serioegirik honetan ikasteko. Orain ni ari naiz Hernanin ikastaro bat ematen; informatika musikala.

■ Ezjakinontzat; nola egiten da musika ordenadorez? Nik musika idazten dut, konposatzen dut. Ordenadorea tresna bat da. Doinuak grabatu eta manipulatu ditzakezu, sintetizadoreaz hotsak sortu.... Ordenadoreak aukera asko ematen du; zaila da adibidez



Unai Barruetabeña, Florida auzoko bere estudioan.

zuk aire sekzio bat lortzea, ba ordenadorez lor dezakezu. Gainera instrumentu ezberdinentzat konposatzen ari zarena dena batera entzuteko aukera ematen ditzu. Beethovenek horrelako zerbaitek izan balu!

■ Zein musika mota konposatzen duzu?  
Teknoa, house-a egiten dut batez ere. Orain entzuten ari garena teknika brasildarra da adibidez.  
■ Zer behar du kanta batek festa batean funtziona dezan?

Nire gustorako ez du azkarre-gia izan behar, ezta motelegia ere. Tekno gogorrear adibidez 145- 150 kolpe minutuko izaten da neurria; niri 125-135 kolpe minutuko izatea gusta-tzen zait.

Saiatzen naiz kantetan ahotsa egon dadin eta airezko instrumentuak. Harritzen zaituzten kantak gustatzen zaizkit, dibertigarriak direnak.

■ Non aritzen zarete batez ere? Eta nola prestatzen da

saio bat?

Festetan; batez ere guk geuk antolatutako festetan. Ez dut nire burua promozionatzeko lanik hartu, hau hobby-a da niretzat. Agian Goizuetan egin go dugu laster festatxo bat.

Saio batetan pixka bat inprobisatu behar duzu; kome-ni da berrehun bat kanta era-matea jendeak kanta batzuekin erantzuten ez badu beste batzuk izateko. Jendea dantzan ari bada ondo zoaz baina

moteltzen ari dela somatuz gero aldatu egin behar da.

■ Jendeak kanta asko eska-tzen ditzu? Ona da hori?  
Bai, esku bai, baina, ez da ona. Zu zure lanarekin ari zara eta moztu egiten dizute; askotan despistatu egiten zara eskean hasten bazaizkizu eta ezin duzu lana ondo egin.

■ Nola moldatzen zara mu-sika kontuetan egunean mantentzeko?

Internet da horretarako erabil-tzen dena, batez ere. Zaletasun bera duen jendearekin trukeak eginez eta noski, musika ero-siz. Interneteek duen abantaila da hemendik bertatik Ingala-terra edo AEBetako musika eros dezakezula.

■ Baduzu aurrera begira gauzatu nahiko zenukeen proiekturen bat?

Proiektua entzuten ari zarena da. Neska batekin lanean ari naiz, ingelesa da bera eta ahotsak jartzen ditu. Disko bat grabatzea gustatuko litzaigu-ke; oraindik ez naiz hala ere inorekin kontaktuan jarri.

Duela urte batzuk Gazte-mania lehiaketa irabazi genuen eta zerbaitek grabatu genuen. Horren harira Gaztes-zenatik deitu ziguten jo gene-zan baina arazotxo batzuk izan genituen eta ezin izan genuen jo. Taldea sortua genuen baina desegiten joan zen.

■ Zein zaitasun daude pro-ektuok aurrera ateratzeko?  
Zailena musikariak makina batekin lanean aritzera ohitzea da, kostatu egiten zaie, ez daude ohitura. Bestalde, Eus-kal Herrian musika mota hau berri samarra da eta bere leku-toxa egin gabe dauka. □

**HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA ZORIONAK!**  
HABeren 1. edo 2. maila, EGA agiria edo hizkuntz eskakizunen bat atera duzuen guzioi  
04-05 IKASTURTERAKO Matrikulaldia ZABALIK irailaren 6tik 24ra  
Diru-laguntzak ere badauzagu. Galde ezazu euskaltegian (Karobieta 63an, anbulatorio zaharrean)! ☎ 943 331896  
e-mail: euskaltegi@hernani.net  
Ordutegia: 9:00-13:00 / 16:00-19:00  
HERNANIKO UDALA

**Etxe BERRI GABERIA**  
- Eguneko menua  
- Askeburuakoa  
- Pinotxo Bero eta hozkak  
- Kazueliak  
- Pinotxo Berezia:  
Gailba Brotxeña  
EtxeBerri 2 ☎ 943551267

**HERNANI HIZKUNTZAK** (Gure Ingelesetxea)  
ZORIONAK guztiontzat Advanced eta First azterketak gainditzeagatik.  
**DATORREN IKASTURTERAKO**  
**MATRIKULA ZABALIK**  
Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1

**BIKAIN** OKINDEGI TA GOZOTEGIA  
Eguneroko ogia beti bikain  
Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089  
Elkano 12 - Tel.: 943 553142  
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487  
20120 Hernani



## ALBOKARIEN HERNANIKO 11. TOPAKETA



Euskal Herriko albokarieiek elkarrekin harremanetan jartzeko aprobetxatuko dute asteburua.

## Kukuma taldea eta 'Albokaren alde batzuk' liburuaren aurkezpena asteburuan

■ Asteburuan Albokarien 11garren topaketa izango da ■ Aurtengo nobedadeak dira Kukuma taldearen kontzertua eta Manu Gojenolaren liburuaren aurkezpena.

ALBOKARIEN 11garren topaketa izango da larunbat eta igandean Hernanin. Urtero bezala, Euskal Herriko albokarieiek elkar ezagutzeo aprobetxatuko dute asteburua. Albokarien Topaketa hau antolatzen duen Musika Eskola Publikoko Alboka Taldeak aurtengo ediziotsik azpimarratu ditu Kukuma taldearen emanaldia eta Manu Gojenolak albokari buruz idatzi duen liburu berriaren aurkezpena: *'Albokaren alde batzuk'*.

**Kukuma taldea larunbatean**  
Larunbatean arratsaldeko 19:00etan Biteriko Areto Nagusian, Kukuma taldearen emanaldia izango da. Kukuma taldeko ki-deak jatorri ezberdinako musikariak dira, nahiz eta Bilbon elkartzen diren normalean. Kukumako musikariak dira: David Nanclares (guitarra eta aho-tsa), Jose Llorach (bateria eta perkusioak), Pottoki (alboka eta ahots nagusia), Ruben Issasi (trikitixa, flautak eta ahotsa), Txeroki (perkusioak), Victor Gomez (bajoa) eta Xabier Valle (Alboka, gaitak, whistle-ak, eta ahotsa). Musikari hauek Bilbo ezkerdeldik, Aiaratik eta Mur-

Doinu tradizionalak eta berriagoak nahasten ditu "Kukuma" taldeak. Emanaldia larunbatean, arratsaldeko 19:00etan egingo dute Biterin

Igandean Hernaniko eta Euskal Herriko txoko ezberdinako albokariak izango dira kalean egun guztian zehar

tziatik dato. Elkarrekin 2003 urteko udan hasi ziren eta Biterin emango duten emanaldian erritmo ezberdinak batuko dituzte: europa osoko doinu tradizionalak, polka, reggae, Kolonbiako kanta tradizionala eta taldearen errepertorioko kantak, besteak beste.

**Igandean, alboka kalean**  
Igandean ez da alboka doinu-

rik faltako herrian barrena. Izan ere, Hernaniko eta Euskal Herriko txoko ezberdinatik etorritako albokariak izango dira egun guztian zehar, baldin eta eguraldiak laguntzen badu. Goizeko 10:30etan, albokari guztiak Udaletxeko arkupetan elkartuko dira eta segidan, kale buelta egingo dute. Tilosetan, albokagile azoka erakusketa izango da goiz partean eta albokak nola egiten diren ikusteko aukera izango dugu.

Eguerdia parteko 11:45etan, Sandiusterrin, Manu Gojenolak albokari buruz atera berri duen liburuaren aurkezpena egingo du. Liburuaren izenburua da *'Albokaren alde batzuk'* eta bertan irakurri daiteke albokaren historia, egoera eta ingurua, besteak beste.

Eguerdiko 12:30etan Tilosetan Albokaldia izango da eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik etorritako albokarien emanaldiak entzuteko aukera izango da. Eguerdiko 14:30etan, herri bazkaria antolatu dute Santa Barbara elkartean eta 18:30etan, astebruarri agurra emateko kalejira egingo dute albokarieiek. □

## ■ TXIRRINDULARITZA



Argazkia: Argazki Press

Otxotorena, aurten Laudion irabazitako lasterketan.

## Xabat Otxotorenak Lezoko Santa Kruz Saria irabazi du

XABAT Otxotorena, txirrindulari hernaniarra, denboraldi borobila egiten ari da, eta larunbatean Lezoko Santa Kruz saria irabazi du. Otxotorena helmugara Gaizka Lasaren aurretik iritsi zen, 5 segundotako aldearekin. Serbitzu taldeko hernaniar gazteak denboraldi honetan lortu duen 5garren garaipena izan da Lezoko eta afizionatu mailan punta puntan jarraitzen du. □

## ■ ERREMONTEA - HUARTEKO TORNEOA

### Jokin Etxabe finaletik kanpo

JOKIN Etxabe, Hernanin bizi den errmontista azkoitiarrak Nafarroako Huarteko Torneoeko finala jokatzeko aukera galdu du. Etxabek Bitoria izan zuen bikote torneoko finalurrekoan eta 40-37 galdu zuten Altuna II eta Urrutiaren kontra.

Partidu borrokatua izan zen Etxabe eta Bitoriak Altuna II eta Urrutiaren kontra.

jokatu zutena. Partidu hasieran Etxabe eta Bitoria aurretitik izan ziren eta 22-15 ere egin zuten. Baina 23na jarri zirenean Altuna II eta Urrutiak aurrea hartu zieten. Partidu bukaera aldera Bitoria eta Etxabek berriro hartu zuten aurrea, 31-34. Azkeneko txanpan, 6 tanto jarraian eginda, Altuna IIak eta Urrutiak irabazi zuten. □

## JUBILATU ETXEA

### Larunbatean paseoa

JUBILATU Etxeak goizeko paseoa egingo du datorren larunbatean. Betiko orduan irtengo dira Goiz Eguzkitik eta paseoa egingo dute Herna-

niko parajeetan barrean. Deskantsatu eta indarrak hartzeko Hamaiketako sagardotegi batean egin eta bueltatuko dira berriz ere kalera. □

## ZERBITZUAK

### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltsaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

### + FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 ☎ 943 336077
- Gauze: Tanco Urnieta, San Juan 36 ☎ 943 550942

## IRAGARKI MERKEAK

Goizeko 7, 45etik 9,45ra etxeiko lanak egiteko norbait behar degu. Deitu: 943 55 02 34  
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertsbra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

